

*Euskera para castellanohablantes*

*(O de cómo dos lenguas tan distintas se parecen tanto)*

Beatriz Fernández

Prentsaurrekoa

Hizkuntzek askotariko sentipenak sortarazten dizkigute hiztunoi. Litekeena da gaztelaniadun batek sentitzea bere ama hizkuntza ez dela euskara bezalakoa. Inoiz euskaraz jakiteko edo gutxienez ikasteko aukerarik izan ez badu, ziur aski oso gutxi edo ia ezer ere ez du ulertuko euskaldunen arteko elkarrizketa batetik. Are gehiago, ikasten hasita ere, beharbada hizkuntza bien arteko aldeak aurkituko ditu nagusiki, eta ez bien arteko antzekotasunak, eta horrek bigarren hizkuntzaren ikasketa zaildu egingo du.

Ez da hau, ordea, kontrakoa baino, nik liburu honetan hartu dudan ikuspuntua, hots, itxuraz pentsa litekeenaren kontra, euskara eta gaztelania bezalako hizkuntzek, oso ezberdinak diruditenek, bata bestearen antz handia dute. Beharbada, ez ikusiaz batera, bien arteko aldea nabarmenagoa da-eta orduan, ez bada begiratuarekin bila hasi eta bien alderdi ezkutuagoetan sartzen garenean. Badira bien arteko ezberdintasunei erreparatzen dietenak urrunagora begiratu gabe, eta hori, jakina, zilegi da, baina bagara ni bezala, itsaso sakonagoetan nabigatzea eta hizkuntzen muina zein den bilatzea gustuko dugunok. Eta hantxe, muinean, bi hizkuntzak ia berdinak dira.

Ez dut nahi ezta, inor engainatu nahi. Euskarari eta gaztelaniari buruz diodan hau beste edozein bi hizkuntzari buruz esan nezake. Nolabait esateko, niretzat, edozein hizkuntza natural, hots, txikitan berez ikasten dugun edozein, ausaz aukeratu genezakeen beste edozein hizkuntzaren antzekoa da, biak dira-eta jaiotzezko gizagaitasun bera eta unibertsalaren adierazgarriak.

Hau esanda, nire hautua ez da ausazkoa. Beharbada biritza eman zidaten haiek, aldi berean bi hizkuntza eman zizkidatelako, bata eurena, gaztelania, eta bestea lurrarena, euskara, beste pertsona batzuekin batera, horietako asko gaztelaniadun elebazarrek Bihotz Gaztea ikastola sortu zutenean Santurtzin hirurogeiko hamarkadan. Beharbada Pagasarrira eskutik helduta nideramana, amaren aldeko aitita, Bilbora joan den mendearen hasieran heldutako hiztun gaztelanidun bat zelako, eta baita nire amaren aldeko amama ere, emakume txiki eta gaixobera bat, euskaraz tutik ere jakin gabe, bazkaldu ondoren mahaia batu behar zenean, hondakinak (*los hondakines*) jasotzea eskatzen ziguna edo gogotsu zaintzen ninduen begitxindor (*un biritxindón*) bat ateratzen zitzaidanean.

Hortaz, liburu honek, zeina luzaz kitatu gabeko familia zor bat den, asmoa du euskara erakusteko nire gurasoak eta amaren aldeko aitita-amamak bezalako hiztun gaztelaniadunei. Eta horregatik, orrialde hauetan deskribatu, aztertu eta konparatzen ditut hizkuntza hauek biak eta ez beste edozein.

Hori egitean, mintzagai izan ditut hizkuntzalarien, filologoaren edo eremuan iniziatuak direnen foroetatik aparte nekez erabiltzen diren gaiak. Adibidez, liburuan kontatzen dut nola ordenatzen diren *gauzak* hizkuntza batean eta bestean. Gauzak diodanean, esan nahi dut adibidez, non kokatzen den osagarri zuzen bat perpausean eta non aditza, eta bide batez, horretan, hizkuntza bat bestearen ispilu irudia da (zeren gaztelaniaz, *como manzanas* esaten dugu, baina euskaraz, *manzanas como*). Edo beste adibide bat ematearren, liburuan erakusten dut nola markatzen diren subjektu eta osagarri zuzena, esoteriko samarra irudi lezakeena, baina benetan berebiziko garrantzia duena hiztunentzat, zerena, hitz egiten dutenean, oso argi bereizi behar dituzte subjektua eta osagarria, adibidez, urliak sandia maite duela diotenean, alderantziz ere egia izan daitekeena, baina ez halabeharrez.

Normalean (eta populazioaren osasun onaren erakusgarria da hori), halako gaiak ez dira erabiltzen norbera hizkuntzaren mendekoa ez denean, neu naizen bezalako, errehabilitatzeko asmorik ez dudana bestalde. Gai hauek, gainera, susmo txarrak eta ziurtasunik eza eragiten dituzte hiztunengan, zeinek konfidantzarik gabe edo nahasturik erreakzionatu eta galdetzen duten: *Txarto esan al dut ezer? Ez al da*

*zuzena gaztelaniaz? Ez dut ondo esan euskaraz? Zuzendu beharra al daukat?,* interes falta erakusten ez dutenean (*pu, hizkuntza, laga, laga, ez da-eta hori nire gaia*). Hitzun horiek ikasle garaiko gramatika arauemaileko eskolak izango dituzte gogoan, hezkuntza sistemak gure gazteak torturatzen segitzen duen gramatika bera alegia. Horregatik, eta kasu honetan ez dudalako nahi mintzakide aditurik morfema baten izaeraz nik bezain suharki eta pasio handiz eztabaidatzen duenik, horrenbestereinoko pasioz non biok bat ez etortzeak galbidera eraman gaitzakeen, saiatu naiz testua maneatzeko bi hizkuntzak inguratzen dituzten bestelako gaiekin, hala nola, gure herriaren historia, partekatua zentzu askotan, kultura, sukaldaritzaren literatura eta zinea, beharbada sasoi oneko hitzuentzat interesgarriagoak diren gaiak.

Txikitan, buruko mina nuenean, ordutik aurrera jasan dudana gaitz bakarra, amak koilara batean aspirina bat desegiten zuzen uretan eta azukre apur bat gaineratzen zion. Hark eramangarriagoa egiten zion zapora mingotsa, ordurako euskal sukaldaritzaren sekretu handietan aho sabaia ondo trebatua zuen neskato ahozuriari. Ez dakit oro har hizkuntzekin eta bereziki nik lan egiten dudana arloekin, hots, sintaxiarekin eta gramatikarekin zerikusia duten kontuek aspirinaren zapora mingotsa duten. Niretzat ez, jakina, baina bai hitzun gehienentzat. Horregatik, testua eztitu dut gaztelaniadunek euskaraz ez ezik, euren hizkuntzaz ere gozatzeko aukera izan dezaten, ez beharbada nik gozatzen dudana pasio berberarekin, baina bai, behintzat, jakin-minarekin eta interesarekin, beldurrik gabe eta batez ere, aurreiritzirik gabe. Azken batean, hizkuntza gure idiosinkrasia biologikoaren parte bat da, baina baita gure identitate kulturalarena, gure bilakaera historikoarena eta, espero dezagun, gure gero hurbil eta urrunarena ere.

Liburu honen aurkezpena amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Erein argitaletxeari eta bere editore Inazio Mujikari. Liburuaren atarikoan diodan bezala, Patxi Goenagaren, gure gramatikaririk onenetako baten, *Gramatika bideetan* liburua 1978an argitaratu zuen argitaletxe bera izateak harrotasunez betetzen nau, erantzukinez zamatu arren. Azkenik, aipatu nahi nituzke hiru hizkuntzalari bikain, proiektu honetan nola edo hala lagundu didaten askoren artean. Lehenik eta behin,

José Antonio Pascual, espainiar lexikografo bikaina eta RAEko akademikoa, liburu honen sorkuntzaren hasieratik, konplizitatearekin eta begikotasunez lagundu didana; bigarrenik, Juan Carlos Moreno Cabrera, madrildar tipologo ezaguna, poliglota eta euskalduna, hizkuntzen maitalea eta hizkuntzen arteko berdintasuna sutsuki defendatu duena, eta hirugarren eta azkenik, Maitena Etxebarria, Euskal Herriko gaztelania ezin hobeto ezagutzen duena eta nirekin hainbat sufrimendu eta neke partekatu dituen adiskide maitea.

Eskerrik asko denei bihotz-bihotzez.

Beatriz Fernández, 2016ko azaroak 28